

“Errepublika beharrezkoa ez ezik, ezinbesteko ere buhurtu da”

EZARRITAKO ORDENA HONEN AURKA gure ahotsa jaso nahi dugu, gutxi batzuen mesederako herritar gehienak pobreziarik handiengan murgiltzen dituen sistemaren aurka. Horrez gain, sistemak oinarrizko eskubideak kentzen ditu, askatasuna mugatu eta parte hartzeko edozein tresna murriztearekin batera.

Halako sistema agortutzat jotzen dugu, bidegabea, demokraziagabezia ugari baititu:

- Ordezkarritasun kaskar baten ondorioz bi alderdiko sistemak pobrezia, bidegabekeria eta ustelkeria handiagoak besterik ezin baitu eskaini. Horrela gaurko eredu konstituzionala hustu egiten du, edo ez du betetzen.
- Izan ere, Konstituzioak jasotzen dituen eskubide sozialak hasieratik paper erre buhurtu zuten. Hala gertatzen da, bestak beste, lan (35 artikulua) eta etxebizitza duina izateko eskubidearekin (47. artikulua). Horren arabera, sarkasmo ankerra da adieraztea botere publikoek enplegu osoa bideratzeko politika egin eta lurraren espekulazioa eragotziko dutela.
- Monarkia sistema ustela da eta jatorriz sasikoa. Estatu Buruzagia ez dugu aukeratu, Franko diktadoreak ezarri baitzuen, zaharkitutako instituzio gisa oinarrizko uzteko demokratikorik gabe.
- Sistema honek inolako lotsarik gabe onartu egiten du frankismoaren inpunitatea biktimekiko konpondu gabe jarraitzea, egia, zuzenbidea eta ordaina ukatuz.
- Justizia administrazioak ez du betetzen herritar guztiok dugun eskubidea justizia azkarra, bidezkoa eta eraginkorra izateko, Izan ere, nabarmenak dira legearen aurrean ezberdintasuna, indultu selektiboak eta botereen benetako banaketa ez izatea.
- Hezkuntza politika, ez dago bideraturik ez kulturaren ez komunikabideetan pertsonen garapen osora, adimenera eta gozamenera, helburua baita pentsamendu uniformearen duten menpeko herritarrak sortzea.
- Izan ere, eredu ekonomikoa, berez, ez da gauza bizitza duin bat emateko langabezia dauden milioika langileri, etxetik kaleratutako milaka herritarri, estutasunez lan egiten duten gazteei, miseria gorriko pentsioekin bizirautean duten jubilatuei, etab.
- Bizikidetzaren esparrua hobea izan dadin herriek duten erabakitze eskubide aldarrikapenak ez dute konponbiderik egungo autonomien Estatuan.
- Askatasun demokratikoak eta iritzi, adierazpen eta manifestazio eskubidea larriki mugatzen eta zapaltzen ari dira.
- Izan ere, kanpo arazoetako politika nabarmen ari da Estatu Batuetako eta NATOren interesen menpekoa da, erasoko gerra inperialistetan lagunduz,

Horiek guztiek eta gaurko sistemaren eta bera sustengatzen duten politikaren bestelako ezaugarri gaitzesgarriek eraman gaituzte **GIZARTE BERRI BAT SORTZEKO PROPOSAMENA** aurkeztera. Gizarte hori etorkizunaren jabe diren gizon-emakumeek osatuko dute, baldintza hobetan bizitzeko moduko gertuko etorkizuna eskaintzeko. Eta egiten dugun proposamena honakoa da. **ERREPUBLIKA**.

Errepublika **TRANSIZIO GARAIAN SORTURIKO EREDU MONARKIKOA ETA NEOLIBERALA HAUSTEKO**, estatu eredu demokratikoagoa ezarri dezagun, askatasun eta berdintasun handiagoakoa, non herritarrak gobernuaren edozein ekintzaren subjektu nagusiak izango diren. Era horretan, eskubideak eta betebeharrak konstituzioaren arabera izango dira eta legez eskatu ahal izango dira, honako oinarriak kontuan harturik:

1. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, gizon eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna duena. Hala, hori abiapuntu ukaezina izango da ordenamendu juridiko berria eraikitzeo gizakien premiak asetze aldera.

2. Estatu bat, non eskubideen eta betebeharren berdintasunetik abiatu, solidaritatearen eta kohesio sozialaren bitartez, herriek eraikitze eskubidea errespetatu den.
3. Estatu laikoa, banakoen kontzientzia askatasuna eta Elizaren eta Estatuaren arteko banaketa bermatzeko. Horrela, hezkuntza publikoa, laikoa, unibertsala doakoa eta kalitatekoa izango da, eta kultura adimenaren, berdintasunaren eta askatasunaren zerbitzurako izango da.
4. Erabateko Demokrazia, eta bertan herritarrek alor publikoan parte-hartzeko bideak izango dituzte, beren borondatea errespetatuz bidezko hauteskunde sistemaren bidez, hala nola herritarren esku-hartze eta kontrolerako bestelako tresnen bitartez. Hortaz, bateraezina izango da Estatuko buruzagitza oinordetzakoa den monarkiarekin.
5. Estatu solidarioa eta bakearen aldekoa, bakoitzaren gaitasunaren arabera ekarpena ezarriko duen erreforma fiskalarekin, ondasunen banaketa soziala onartuko duena publikoaren eta behar gehien duten gizarte sektoreen beharrak betetzearren. Kanpoko arazoetako politika bakean eta nazioarteko legalitatean oinarrituko da gatazka konpontzeko eta herrien arteko lankidetzarako.
6. Ekonomia pertsonen zerbitzura jarriko dugu eta ingurumena errespetatu du, eta osasunerako zerbitzu publikoak, hezkuntzakoak, gizarte zerbitzuak, pentsioak... pribatizatze kanpo geratu dira, pertsona guztien eskubideak asetzeko bermatzeko. Banku publikoa ezarriko da, nekazaritzako reformari ekingo zaio, komunikabideetarako sarrera bermatuko da, etab. Etxebizitza kalitatekoa izateko eskubidea, langabeziaren aurka babestearekin batera.
7. Publikoa kudeatzeko irizpideak Etika eta Arrazionaltasuna izango dira; eta, eraginkortasuna, gardentasuna eta neurritasuna. Neurritz kanpoko kontsumismoaren aurka egingo dugu eta errotik atera eta zigortuko dugu edozein ustelkeria mota, lortu nahi dugun gizarte eremuan halako gaitzik ezin baitugu onartu.

Beraz, gure asmorik sendoena agertu nahi dugu **PROZESU KONSTITUZIOGILE ERREPUBLIKARRA** sustatzeko. Oinarri horiek eta bestelakoak hartuta proposamena eraikitze guztion parte-hartzeari begira ireki dugu, edukiz bete, sustatu eta babesteko.

Hiru koloreko banderak, 1931ean, herri eta hirietako kaleak hartu zituen, aldaketa politikoari eta sozialari atea zabaltzeko, eta bide batez itxaropenari. Gaur berriz atea zabaldu egin behar dugu, eta zorrotz baieztatuko dugu **EZ DIOGULA UKO EGITEN GURE ETORKIZUNARI**, justizia eta demokrazia handiagoak izateko. Izan ere, halakoa izango da aldarrikatzen dugun **ERREPUBLIKA**ren aldeko gure konpromisoa.

¡No a la Consitución del 78!

¡Por la III República!

Asociación Republicana de Andoain "Belabieta", Asociación Republicana Irunesa "Nicolás Guerendiain", Agrupación Republicana de Oarsoaldea "Pikoketa", Colectivo Republicano de Euskal Herria, Donostiako Errepublikarrak, Junta Estatal Republicana, Tolosako Foro Errepublikanoa, Unidad Cívica por la República